




# Bizitza oso bat orri bakar batzuetan

TODA UNA VIDA EN UNAS POCAS PÁGINAS



ERAKUSKETA ETA KATALOGORAKO MARGO IRUDIAK / CUADROS DE LA EXPOSICION Y CATÁLOGO

Vicenta Bengoa  
Felisa Estefania  
Agustin Ibarluzea  
Julio Galarta  
Tirados Etxebarria familia  
Arrasateko Udala

Eskerrik asko ere Jose Ramon Mendizabali, emandako erraztasunengatik.  
Gracias también a José Ramón Mendizabal, por las facilidades dadas.

Eskerrik asko Conchita Zarraoari utzitako argazkiagatik.  
Nuestro agradecimiento a Conchita Zarraoa por la cesión de la foto.

Erakusketaren arduradunak / Responsables de la exposición: Iñigo Arregi eta Arrasate Margo Taldea


Katalogoaren diseinua / Diseño del catálogo: Eneritz Tirados  
Katalogoko margoen argazkiak / Fotografías de las obras del catálogo: José Felix Díaz de Tuesta  
Testuak / Textos: Josemari Velez de Mendizabal, Jone Uriarte  
Espainierazko itzulpena / Traducción:  
Erakusketaren muntaia / Montaje de la exposición: Hurbil Kultura gaiak

L. G. / D. I.:

Katalogo hau argitaratu da 2011ko ekaina eta uztailean Julio Galartaren omenez Kulturaten antolatutako erakusketarako.  
Este catálogo se ha editado para la exposición homenaje a Julio Galarta que se ha organizado en Kulturate en junio julio de 2011.

Guztiz debekatua dago liburu hau bere osoan edo zati batean erreproduzitzea, hala nola edozein sistema informatikotan edo bestelako almagaznamentu edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo dena-delako baliabide erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio nahiz bestelako metodozkoa izanda ere, egilearen alde z aurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

Queda totalmente prohibida la reproducción total o parcial de este libro, así como su incorporación a cualquier sistema informático u otro tipo de almacenamiento o recuperación de información y su transmisión en cualquier forma o por cualquier medio, sea este electrónico, mecánico, por fotocopia, por grabación u otros medios, sin el permiso previo y por escrito del autor.



J. Galarta



## Bizitza oso bat orri bakar batzuetan

TODA UNA VIDA EN UNAS POCAS PÁGINAS



## aurkibidea ÍNDICE

- 4 GalARTa // Jose Mari Velez de Mendizabal
- 12 Julio Galarta // Jone Alaitz Uriarte Iriarte
- 14 Marrazkia Dibujo
- 28 Margoa Pintura
- 94 Arte lanen aurkibidea Índice de las obras

# Josemari Velez de Mendizabal

## GALARTA (JULIO)

2011ko apirilaren 22an

Bizitza oso baten obra lerro bakan batzuetan laburbildu behar denean derrigorrez daukagu mugarriak aldeztetik ongi zehaztea. Bizitza, gainera, ondoko hitzetan nabarmendu nahi dudana pertsonarena bezain jori eta zabala baldin bada are zailagoa bihurtzen zaigu ariketa. Baina, aldi berean, lantegiak merezi duelako ahaleginak bere konpentsazioa badu eta bidea ez da inondik ere aldapatsua egiten. Horixe bera sentitzen dut nik Julio Galartaren gaineko hausnarketari ekiten diodanean.

Ez dakit aldeko ala, hain justu, kontrako balioa dudana Julioaren aspaldiko jarraitzaile izatea. Berarekiko eduki dezakedan ezagutza, biok lotzen gaituen adiskidetasunak aldrebestu egin lezake eta, beraz, nahi ez nukeen labainkada gerta ez dakidan neurriak hartu beharko ditut. Seguru nago, dena den, idazkia amaitu aitzin bihotzak bere mezuak bidaliko dizkidala, arrazoiak markatuko dituen bideetan bere ekarpena ere kontuan eduki dezadan. Edozein modutan, objektibotasunari helduko diodala dut promes egiten.

Julio Galarta modurik zehatzenean nola muga nezakeen pentsatzen jarri naizenean, bere abizenaren gaitasunean kontzentratu naiz, deiturak bideren bat marka ote liezadakeen aztertuz. Eta buelta pare bat eman ondoren Galarta hitza akronimo bat dela konturatu naiz eta bere hizkietan gordetzen ditu Julioaren nortasunari indarririk gehien eman dizkieten nolakotasunak. **G- a- l- ART- a** Egiaztapen horretatik abiatuz amaierara ildo logikotik hel nintekeela ikusi dut eta istorioari atxiki natzaio, pozik.

G.

**Gizona.** Erarik hertsienetik eta, halaber, zabalenetik begiratuta Julio gizona da, gure nagusiek esango zuten bezala, betiko galdu den estiloko gizona, zaldunezko izatearekiko bat eginda. Eta etxe-behatokitik aztertuko bagenu ere, gizona dugu, bere bertute eta akatsak ororekin.

Giro desberdinera landatutako kanpo-oihaneke kimua izanik –1917an jaioa- aurki ohi zuen Julio zeru berrietara. Umetxo heldu zen Arrasatera eta artean ume zela ezagutu zizkion ertzak bizitzari. Julioaren urte haietako inkontzienteari itsatsi zitzaizkion koloreak grisak ziren, ilun samarrak, geroko kolore eztanda iragarri ezin zezaketenak. Mesedeetako mojetara bidali zuten txikitxo eta Sor Margarita izan zuen irakasle, umearengan oroitzapen goxoak utzi zituen.

Aurrera joko bazuen zetorkionari ahalik eta modurik sotilenean aurre egin beharra zeukan gazte hark, eragozpen eta langa guztien gainetik. Lucio Portillo maisuarekin amaitu zituen oinarritzko ikasketak Eskola Zaharrean, 14 urterekin. Eta segituan lanera, Roneora. Errepublikara garaia zen eta euskal pizkundearen zurrumbiloea Euskal Herriko bazter guztietara heltzen ari zen. Baita Arrasateko kaleetara ere. Herriko gazteen norabideak bakoitzaren sentimendu eta idealen arabera eraikitzen ziren eta Julio ildo pare bati heldu zion indarrez: pintura eta musika. Horiek, gainera, abertzaletasunaren postulatuetatik zuzenduta.

Parrokiako tiplea izan zen eta musika ikasi zuen Don Dionisiorekin, txistuaren sekretuetan barrena egiteko lagundu ziona. Otxoa, Torres eta Julio: zenbat

biribilketa, zenbat arin-arin! Berdin zion abertzaleen Batzoki ala karlisten Zirkulutik bazetorkion deia. Bera han zegoen bere txistuekin, batzuen eta besteen jaia alaitzen. Eta Antonio Armengouekin lehen marrazki-klaseak hartu zituen, seriotasun osoz, bidea ibiltzeaz egiten dela konbentzituta. Pinturaren xarmak harrapatuta, aurreneko ahaleginak burutu zituen etxeko bakardadean, akuarelaz. Artean ez zen ausartzen barneko espresibitate plastikorako garra publikoki agertaraztera, baina jakin bazekien huraxe zela gehien betetzen zuen adierazpen artistikoa. Lotsati samarra bere gero eta ekarpen sendoagoaren aurrean, lagunen zirkulura mugatzen zituen bere ametsak. Felix Iraola, Gregorio Azkoaga, Antonio Ansoategi... bihurtu ziren gazte haren sustatzaile anonimoak, eta hala jarraitu zuten aurrerantzean ere.

Gazte haiengan gizarte-giroak pizturiko idealak neurri berezia hartu zuen Julio gaztearen kasuan. Jose Markiegi apaizaren eraginak fruitu eman zuen haren bizitzan eta Markiegirekin aurrerratu zuen euskararen esparruan eta -arte mota desberdin batek ukitua ere, nonbait- antzez-mundua zer zen ikasi zuen. Politikaren haizeak Juliorengana ere iritsi ziren eta ANVrekin bat egin zuen. **“Ezkertiar samarra izan naiz beti”** aitortzen zidan duela gutxi.

Prestakuntza profesionalerako maisutza industrialak egoki etor zekiokeelako Bergarako Eskolara hurbiltzen zen astean behin, Roneoko beste lankide batzuekin. Ez zuen amaitu ahal izan, gerrak eten egin baitzuen Juliores ikas-ibilbidea. Eta gerraren ondorioz frontea, Sevillako ospitalera eraman zuena.

Eta etxerako itzulera. Berriz ere kolore grisak ziren nagusi herrian, eta Juliok bere pintzelak berreskuratu zituen, bizitzari kolore pixka bat jartzeko gogoz. Eta ordudunik, zazpi hamarkadaz gain, xede horrekin segitzen du. **“Gorputza pixka bat osatzen zaidanean baztertxo hau pintatu nahi nuke”** esan zidan iragan apirilean Aretxabaletako egoitzaren lorategiko erreka-bazterrari begira. Eta seguru nago ordurako bere baitan estrukturatua zuela margo irudi hura.

A.  
**Arrasate, Angelines, Aramaio, Araba, Akixo...** Hainbeste A dago Juliores bizitzan, non auskalo zein ordenan jarri beharko nituzkeen. Dagoeneko bat ageri zaigu, indar handiz: Arrasate. Arrasatear petoa dugu, **“hola ok pa!”** hitzetik hortzera darabiltenen (erabili izan ohi duten?) horietakoa. Erdiko Kaleko 50 zenbakiko etxetik bere egin zituen herriko soinuak, usaiak, marmarak, koloreak... Eta gure kale eta kantoiak etengabe erretratatu ditu bere pintzelekin, gaur horixka, bihar urdin, atzo zehazkizun hartaz egun, berriz, honetaz.

Angelines dugu Juliores maitasuna, hizki larriz idatzita. Berrogei urte luzez konpartitu zuten etorkizun hobe baten gaineko ilusioa, giza-sentimenduen askatasunaz ezer gutxi zekien gizarte zurrun batean. Bien bihotzek, ordeak, elkarri egin zioten egiazko amodioaren promesa eta jakin izan zuten ibilbide malkartsuan zoriontsuak izan.

Aramaio jarri dut hirugarren, joera berezia izan baitu gaztetatik aramaioar ibarreko bazterrak bere margo-irudietan plasmatzeko. Mentxu Gal paisaia-pintore ospetsuari begirune osoz aurpegiratu zion behin, ez zekiela Euskal Herriko edertasuna zer zen... ez baitzuen Aramaio ezagutzen!

Joera berezia ere izan du Juliok Arabarengatik. Araba margoaskotarikoak erakarri egin du beti eta sarritan aurki genezake gure artista Barrundia ingurukoak edota Errioxa aldekoak euren tonu berezietan finkatzen.

Eta zer esan Akixo baserriaz? Zenbat aldiz margotu du Garagartzako baserria? Begiak itxita ere gai izan da Julio eraikin multzoaren zehazkizunak oro zintzotasunez plasmatzeko.

L.  
**Luze.** Julio luze agertzen zaigu emaitzan, luze eskuzabaltasunean, luze maisutzan, luze bizitzan. Arrasateko artista plastikorik emankorrena izan da, milaka margo-irudirekin, han eta hemen barreiatuta. Pintura munduko lehen urratsak Juliorekin egin duten lagun askok maisutzat daukate. Maisu irekia, jakintsua, zorrotza, eskuzabala, belaunalditan berezko herri-katedratik ihardun duena. Ikasgai magistral luzea izan da Juliorena, sekula ordaindu ahal izango ez zaiona.

Juliok luze jokatu du esparru geografiko artistikoan, eta luze motiboetan. Paisaian nabarmendu den arren, ez ditu beste motako gaiak ekidin. **“Karakterra eman diote nire obraren osotasunari”** Luze eta zabal aritu da adiskideen zirkuluan, luze dotorezian, luze jatortasunean.

ART.  
**Artista.** Horrela, hitz bakarra. “Euskal Paisaiak” titulupean 1987an Gasteizko Kordoi Etxean izan zuen erakusketaren katalogorako testu bat eskatu zidan Juliok eta nire hitzetan gonbidapena egiten nion, tailerreko atean jarrita zeukan plakatxoa alda zezan, “Julio Galarta. Pintorea” bakarrik adieraziko zuenarekin ordezkatzuz. Julio, gainerako nolakotasunez gain, artista baita.

Kalitatezko lanarekin konprometitua, Julio sortzaile hutsa dugu, irudimen aberatseko dohainen eskutik. Arrasateko Biteri Fundazioaren Arte eta Ofizioetako Eskolan ikasle izan bazen ere, aurki berezko bere ibilbideari ekin zion. Artista egingo bada ikas-zentroak ezinbestekoak direla konbentzituta dagoen arren, Arrasatek arterako izan duen (duen?) sentsibiltate txikiak behartuta zeru berriak bilatu zituen. XX. mendeko laugarren hamarkadaren hastapenetan gaude, eta Juliok akuarelak atsegin dituen zehazkizunak aurreneko saiakera formalak material horrekin burutzen ditu. Natureleko marrazki klaseak hartzera doa Bergarara Miguel Okinarekin –sekula ahaztu ez duen adiskide eta gidaria- eta jarraian oliora egiten du saltoa, 1945 inguruan.

Plazara egiten du agerpen publikoa, beraz, eta jadanik kritikoen begien menpe geratzen da bere obra, onerako eta txarrerako. Baina Arrasate ez da Donostia eta, beste hainbat gaitarako bezala, arterako ere Gipuzkoako hiriburutik gure herrirainoko distantzia geografikoa txikiagoa da tartean diren buru-mugak baino. Orain ere ez bazaio debagoienar bati herrialde-mailako medioetara azaltzea batere samurra gertatzen, atera kontua nola izango zen iragan mendeko erdialdean! Dena den, Julio ez zen kokiltzen eta Gipuzkoako Kultura Zirkuluan “Paisajes Vascos 1956” erakusketara bi lan bidali zituen, urte hartako udazkenean. Begira zer zioen J. Arramelek Unidad donostiar egunkarian:

*“Hemos de proclamar, sin ambages a este respecto –saliéndonos por una vez de nuestra norma habitual de no señalar a nadie con el dedo- la excelente impresión que nos han causado los dos paisajes de Julio Galarta. Ignoramos en absoluto quién es este pintor, para nosotros “nuevo en esta plaza”. Su contraluz, de Durango, y su soleado, de Elgueta, denotan por la riqueza de matización, limpieza de paleta y ajuste cromático, respondiendo, además, a un criterio preciso del paisaje, un pintor nada vulgar en la interpretación del nuestro”.*

Baina Juliok bazekien pintura ofiziorako bere prestakuntza murrizta zela, eta Roneo enpresan ahalbidetzen zizkieten erraztasunak baliatuta, lehenik Bartzelonara jo zuen, lehenik bertako Tarregasen Pintura Akademiara, ikastaro bat burutzeko. Ondoren hiriburuko San Jorge Artederretako Goi Eskolan matrikulatu zen 1953an Marrazki-Maisutza egiteko. Horrela, poliki-poliki maila garaia goetara iristeko ahalmenaz jantzi zuen Juliok bere burua, Eskola hartako giroaren babesak lagun. Irakasle izan zituen Santasusagna, Puigdenegoles, Labarta, Muntané, Ribera... Inoiz aitortu duenez, euskal paisaia-pintoreena ez ezik katalanen eragina ere antzeman daiteke bere obran. Jose Maria Arenaza Artearen Historiako Katedradunaren hitzetan *“Aquellos modos han cristalizado en un paisajismo exquisito, en el que nada queda suelto. El brillo del agua, los reflejos del cielo, el verde de los prados y el caserío abandonado. Todo está en la obra de Julio Galarta”.*

Berrogei urte geroago, 1996an, “Avinyo 56” erakusketa kolektiboa antolatu zuten promozio hartako artistek eta Julio haraxe eraman zituen bere obrak, “Promoció de Belles Artes” delakoekin batera.

Prestakuntza teoriko arautua amaituta, eta egunez egun irabazten doan konfidantzaren izpirituan enmarkatuta, 1966ko maiatzean Donostiako “Arte Udal Aretoa” deritzanean bere lehen erakusketa aurkeztu zuen Juliok. Hogeita hamasei olio eraman zituen eta kritika ahoa bete hortz geratu zen, ostera “erabat ezezagun”tzat hartzen zuten pintorearen aurrean. Vicente Cobrerros Uranga artista eta kritikoa ezagunak honako hau idatzi zuen testu luzeago baten barruan, Radio San Sebastian emisoratik adierazteko:

*“Conocemos, en la mayoría de los casos, el proceso formativo de nuestros jóvenes pintores: sus dudas, sus luchas, su aprendizaje... Pero esto de ahora, el surgir de entre nosotros como por ensalmo, un pintor ya en plenitud, sin que conozcamos su “pedigree” es, en verdad, inusitado. Y más, mucho más, cuando ese pintor adviene a la palestra del arte contemporáneo con el énfasis tranquilo de quien está de vuelta de esa procesión de los ismos, que siempre encuentra partidarios de última hora, que hacen buenos a los anteriores, por sus demagógicos radicalismos. Así, pues, Julio Galarta Bengoa, nuevo en esta plaza, no sólo corta las dos orejas, sino que sale a hombros por la puerta grande, como los triunfadores.*

*... En la obra de Galarta palpita la emoción que el paisajista nato siente ante la naturaleza, siempre distinta, no sólo en su constitución geográfica sino, sobre todo, en luces y, por ende, colores que constituyen, dígame lo que se quiera, la entraña más honda y recóndita del paisaje. De aquí, lo que tanto se desdeña hoy en el paisaje... por los que no pueden alcanzarlo.*

*... El paisaje vive, tiene alma: el latido de esta vida y el temblar de esta alma, son los que, limpiamente, con exquisita sencillez y naturalidad, Julio Galarta Bengoa, el pintor vasco que nadie conocía y que surge como milagro en la aridez de nuestro clima artístico traslada a su obra, en plena madurez expresiva, con la pujante alegría de su primaveral juventud.*

*¡Albricias, aficionados al arte guipuzcoano!: tenemos un excelente pintor entre nosotros, que honra y honrará, más y más, nuestro arte”*

Hitz adoregarri bezain zintzoak Vicente Cobrerrosenak, Julio Galarta ez baitzuen pertsonalki ezagutzen, obraren bitartez baizik, “udaberri-gaztetasuna” esamoldetik garbi ondoriozta daitekeen bezala, izan ere Julio une haietan 50 urte betetzear zegoen. Obraren bitartez aztertzen zuen, beraz, Cobrerrok Galarta.

Handik aurrera bidea gero eta zabalagoa bihurtzen zaio Juliori, eta bere ekoizpena ere biderkatu egiten da, handik eta hemendik iristen baitzaizkio eskabideak eta erakusketetarako gonbiteak. Galartaren izena euskal paisaia-margolari ospetsuenen artean hasten da aipatzen. Bere estiloarekiko zintzo, espazio eta koloreen arteko armoniari gogo ematen arriskatzten du etengabe. Juliok berak aitortzen digu:

***“Naturatik ikasi behar da beti. Euskal Herriko argia oso galkorra da, laburra, eta gogoz saiatu behar da kolore efektuak erdiesteko. Kolorearen joera aldatzen joan naiz nire karreraren. Hasieran eskuetoagoak ziren tonuak eta denboraz matiz mordoa jasotzen ahalegindu naiz. Margo-irudi bakoitza, kolorearengatik dudan preferentziaren adierazpena da. Margoaren aldaketak pinturaren balioa adierazten du. Paisaia berbera askatasun osoz pinta dezaket, obrari nire izpiritua eman nahi diodalarik ”***

Edozein artistarengan bezala, Juliores arteak bilakaera bizi izan du. Figuratiboa bere esanahirik beteenean, postinpresionismoaren postulatuarekin bat egin zuen karrerako lehen uneetatik. Inoiz kritikoren batek idatzi duen moduan, expresionismoak ere toki hartu du. Baina Galarta euskal paisaiak erakarri du bere modurik basatienean, hau da, lan egin du begi eta gogo kritikoekin, gizon-emakumeok euskal bazterretan izan dugun interbentzio bortitz eta hondatzaileak haiek kontzientzia kolektibotik erauzi aitzin bere margoetan plasmatuz. Julio kezkatuta dago naturaren kontrako atentatuaz eta dituen armarik egokien bitartez txikizioa eta burugabekeria salatu digu, hain zuzen ere bere lanetan “lehengoa, iragana” gogoraraziz.

Arriskatzeak, ordeak, ez du inoiz harrera berdina izaten ikusliarrengan ezta kritikoengan ere. Horixe da, hain zuzen, arriskuaren alde egitea: aihotzaren ahoan ibiltzea. Horregatik idazten zuen 1977ko abenduan Edorta Kortadi arte adituak Deia egunkarian:

*“Es una pena que las cotas alcanzadas por Galarta y otros muchos paisajistas del País no lleve a cuestionarles nuevos y más valientes planteamientos. El paisaje, la naturaleza, la Tierra son fuente inagotable de inspiración y de trabajo a lo largo de la historia del arte. Pero simple reiteración crítica del mismo no conduce más que a mera artesanía, a pura obra bien hecha, carente de presente y de futuro... El paisaje vasco del siglo XX está aún en ciernes”*

Hitz horiek Galartarengan eragina izan zuten eta aprobetxatu zituen bere obrari buruzko hausnarketa txiki bat egiteko. Eta Julioren ohiko era sotilean, 1979ko abenduan Gasteizen izan zuen erakusketaren katalogorako erabili zuen gogoeta. Julioren ordurarteko arte-kezka mugatzeko primeran datorrena:

**“Agradezco al cronista de Deia la atención que le ha merecido mi obra... No obstante, a mi modesto entender, todos los caminos del arte pueden resultar válidos, si se llega a alcanzar determinadas cotas, porque todo ello representa lucha, estudio, dedicación en la empresa. Puesto a analizar, llegar a ser un buen artesano, es decir ser un buen dibujante o ser un buen pintor, sería la meta soñada de muchos iniciados, y podría ser perfectamente aplicable a otras profesiones. Ahora parece ser que todo el mundo quiere ser genio sin resignarse a ser lo que mencionaba más arriba.**

**... Soy sobre todo amante de la naturaleza, que me ofrece motivos e inspiración para manchar los lienzos. Objetivamente, un plenirista enamorado de todo lo que supone COLOR, y convencido cada vez más para expresar mis emociones libre de ataduras de estilos y técnicas tan en boga actualmente. Trato de plasmar de forma directa y sin manipulaciones de laboratorio.**

**... Sería menester plantear la siguiente pregunta: ¿Para cuándo una Escuela de Arte en Euzkadi? Es el fundamento básico... No olvidemos que la generación de grandes artistas como Arteta, Echevarría, Amárica, Iturrino, Zuloaga, Baroja, Barrueta, Aranoa, Vázquez Díaz o Regoyos tuvieron una formación fuera de nuestras fronteras”.**

Eta Galartak, inkontzienteki agian, aurkeztu egiten digu paisaia kontzientzia kolektiboan dei ozena egiteko. Horrela, gerra osteko plastikari heltzen badio ere, sentimenduz eta idealez gerra aurreko korronte nagusiarekin egiten du bat. Paisaia zuzena da Galartarena, behin eta berriz bizi izandakoa, argia eta doinuaren bilakaeraz modu desberdinez interpretatua.

Aurreko hausnarketan Juliok egiten duen galdera dela-eta, bitxia da Diario Vasco-ko zuzendari-ordea zen Jose Berruezok bere egunkarian 1970eko martxoan zioena, Gipuzkoako Arte Eskola baten premiaren inguruan: *“Galarta, joven de gran vocación, y su condición de “provinciano” puesto que en Mondragón trabaja, son buen argumento para insistir en la necesidad de crearla aquí en la capital, para todos los posibles alumnos de la provincia, y naturalmente de San Sebastián”.*

Gazte izanik segitzen du, 53 urterekin! Hori, bai, marka!

Arte Eskolarik gabe, Galartak bere ondoan onartu ditu zihoazkion pintura-ikasleak. Bere ezagutza transmititzen ahalegindu da, ezer ezkutatu barik, eskuzabal. Eta horrela aitortzen dute aho batez Julioren argi printzen berotasunean hazi diren artista kimu berriek. Galarta maisu bilakatu baita, bere izena euskal paisaia-pintoreen artean berezko merituz ezarria. Ez dira hitz merkeak, inondik ere, 1973an Madrileko galeria batek antolatzen duen “Homenaje a pintores vascos” erakusketa kolektiboak garbi frogatzen duen moduan. Amarica, Zuloaga, Baroja, Zubiaurre, Arteta, Arrue, Iturrino, Kaperotxipi, Tellaechea, Apellaniz, Gal... eta Julio Galartaren obrak ikus

daitezke. Ez da ustekabeko erakusketa horietakoa, hiru edizio eratu baitziren goi izen berdintsuekin. Jesus Apellaniz handiari Donostiako beste areto batean 1976an eskaini zioten omenezko arte bilkura ere, pintoreen zirkuituan Galartak ordurako irabazi zuen ospearen beste adibide bat da.

Julio Galartaren ibilaldia gure egunera arte heldu da, tantaz-tanta, urratsez-urrats, hamarkadaz-hamarkada. Arrasateko artistaren bilakaera gradualak –ezinbesteko gora beherekin- hastapenetako kritikoen iragarpena zuzena izan ote zen zehaztera gonbidatu beharko gintuzke. Bistan da, bizitza artistiko luzean, Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere izandako dozenaka erakusketetan Galartak artista izatezko sena goian utzi duela. Jose Maria Arenaza Arte Historiaren katedradunak 1998an zioen moduan *“Obra zintzo eta kalitatezkoa azkenik garaile ateratzen da. Egun Julio Galarta alaiago dago”*

Eta egia da, Julio Galarta, 2011ari izpiritu gazte eta adoretzuarekin ekin baitzion. Ez zekien ezer, adiskide talde bat prestatzen ari zitzaion omenezko ekintzaz. Eta zorionsua zen. Adinak eta osasunak ahalbidetzen zioten neurrian margotzen jarraitu nahi zuen, bere gogo askatasunez eskaintzeko. Zintzotasunetik, Juliok berezko duen lirismoan ainguratuta, baikortasunez begiratzen zion bizitzari, iraganak maizegi zerbitzatu zizkion une mingotsak erdi ahaztua. Erdi idatzi dut, artista den arren, lehen lehenik gizona baita eta gizon-ernakume guztiok dugu eskubidea zenbait bizitza-pasarte ez ahazteko.

A.

**A, euskal artikulua mugatua.** Eta erabili nahi dut “a” hori, Julio Galarta Arrasateko Artist**A** dela argi eta garbi azpimarratzeko, oraindik enteratu ez direnak Arrasateko Artist**A** Handi**A**ren garrantziaz jabe daitezzen. Galarta izan da Arrasaten urtetan egin den artearen Egile**A** eta Ordezkar**A**. Bere laurogeita hamalau urterekin, oraindik ere herriko artista batzuek Maisu**A** esaten diote Juliori. Eta horrela izaten segituko da, oroimen kolektiboan Galartak bizirik iraungo duen bitartean. Bokazio baten zintzotasunak Galarta gizon**A**ren bizitza zintzoan izan zuen oinarri sendoa. Horregatik heldu da guganaino Galartaren AR**TeA**.

Julio Galartak ikasgai Luze**A** eman digu, esanahi artistiko eta humanistikoan. Bedi eternala bere arte**A**, eta bego Julio lagun**A** gure artean osasuntsu!

11-04-22

Ostiral Santua

.....

**Iñigo Arregik deitu nau goizean albistea emateko: Julio hil berri da.**

**“Ez dut idazkian koma bat ere aldatuko -esan diot- Juliok bizirik jarraitzen baitu”**

11-04-25

Pazko Astelehena

# GALARTA (JULIO)

Cuando se trata de resumir la obra de toda una vida en unas pocas líneas, estamos obligados previamente a concretar de modo correcto sus límites. Además, si la vida de la persona que pretendo destacar en los siguientes apartados es tan abundante y amplia, es aún más difícil llevar a cabo este cometido. Sin embargo, al mismo tiempo, el esfuerzo para llevar a cabo la tarea tiene su compensación y la dificultad se convierte en acicate. Eso mismo siento yo cuando doy comienzo a esta reflexión sobre Julio Galarta.

Desconozco si me es favorable o no el hecho de ser antiguo admirador de Julio. El hecho de haberle tratado y la amistad que nos une pueden complicar esta labor y, por tanto, he de tomar medidas, no vaya a equivocarme. Estoy seguro, no obstante, de que antes de finalizar este escrito el corazón me enviará sus mensajes, para que tenga en cuenta su aportación en los trazos necesariamente marcados por la razón. De todas formas, prometo ser objetivo.

Al ponerme a pensar cómo podría definir del modo más preciso a Julio Galarta, me he concentrado en la idoneidad de su apellido, analizando si el mismo podía marcarme algún camino. Y tras darle algunas vueltas me he dado cuenta de que la palabra Galarta viene a ser un acrónimo y sus letras guardan las cualidades que tanta fuerza han dado a la personalidad de Julio. **G- a- l- ART- a** Partiendo de esta confirmación he visto que podría llegar hasta el final desde una perspectiva lógica y con agrado me he aferrado a la tarea.

G.

**(Gizona) Hombre.** Visto desde la perspectiva más restringida y, asimismo, más amplia, Julio es hombre de un estilo - como dirían nuestros mayores- perdido ya para siempre, un perfecto caballero. Y si lo analizáramos desde una perspectiva familiar, es también hombre, con todas sus virtudes y defectos.

Retoño de bosque ajeno –nacido en el año 1917- y trasplantado a un hábitat diferente, pronto se acostumbró a sus nuevos cielos. Llegó a Arrasate de niño y todavía chaval conoció las dificultades de la vida. Los colores que impregnaron la conciencia de Julio en aquellos años fueron grises, oscuros, tonos que no hacían presagiar la explosión de futuros colores. Estudió sus primeras letras con las monjas de La Merced, siendo Sor Margarita quien dejó en él hermosos recuerdos.

Luchó de la manera más airosa para poder avanzar en sus años jóvenes y lo hizo superando innumerables obstáculos y dificultades. Finalizó sus estudios primarios con el maestro Lucio Portillo en la Eskola Zaharra (Escuela Vieja) con 14 años. Y en seguida a trabajar, en Roneo. Eran los años de la República y en Euskal Herria florecía aquel denominado renacimiento vasco –Euskal Pizkundea. También en las calles de Arrasate. Las inquietudes de la juventud local se erigían a tenor de los sentimientos e ideales individuales y Julio eligió con empeño la pintura y la música. Enfocadas ambas, además, desde postulados nacionalistas.

Fue tiple de la parroquia y estudió música con Don Dionisio, quien le ayudó a desentrañar los secretos del txistu. Otxoa, Torres y Julio: ¡Cuántos pasacalles, cuántos arin-arin! No importaba si la fiesta se organizaba en el Batzoki de los

nacionalistas o en el Círculo de los carlistas. El estaba allí con su txistu, animando las fiestas de unos y de otros. Y con Antonio Armengou cursó sus primeras clases de dibujo, con suma seriedad, convencido de que se hace camino al andar. Atrapado por el encanto de la pintura, hizo sus primeros ensayos en la soledad de su casa, mediante acuarela. Aún no se atrevía a mostrar en público su entusiasmo interno por la expresividad plástica, pero sabía que ésta era la modalidad artística que más le colmaba. Un poco tímido ante su cada vez más sólida apuesta, limitaba sus sueños al círculo de los amigos. Felix Iraola, Gregorio Azkoaga, Antonio Ansoategi... se convirtieron en los promotores anónimos de aquel joven, y así continuaron a partir de aquel momento.

El ideal promovido por el ambiente social en aquellos jóvenes tomó en el caso del joven Julio una dimensión extraordinaria. La mano del sacerdote José Markiegi tuvo reflejo en su vida y precisamente con Markiegi hizo progresos en el área del euskera y –deslumbrado, al parecer, por un tipo de arte diferente– hizo su inmersión en el mundo del teatro. Los aires de la política también llegaron a Julio e hizo suyas las proclamas de ANV. Hace poco me confesaba **“Siempre he sido bastante de izquierdas”**.

A sabiendas de que los estudios de maestría industrial le asentarían en su formación profesional, una vez a la semana, junto a otros compañeros de Roneo, se acercaba a la Escuela de Bergara. No pudo terminarlos ya que la guerra interrumpió los deseos formativos de Julio. Y la guerra le trajo el frente, lo que le condujo al hospital de Sevilla.

Y el regreso a casa. De nuevo los colores grises eran la tónica en el pueblo y Julio recuperó sus pinceles, en un intento por poner un poco de color a la vida. Desde entonces y tras siete décadas, continúa con ese objetivo. Este mismo mes de abril, contemplando como estábamos el riachuelo lindante al jardín de la residencia de Aretxabaleta, me ha confesado: **“Cuando me recupere un poco quisiera pintar este rincón”**. Y estoy seguro de que en su interior tenía estructurada la imagen colorista correspondiente.

A.

**Arrasate, Angelines, Aramaio, Araba, Akixo...** Tantas A hay en la vida de Julio que cualquiera sabe en qué orden habría que colocarlas. Ya nos ha aparecido la primera, con gran fuerza: Arrasate. Es un auténtico arrasatearra-mondragonés, de esos que utilizan (han utilizado) continuamente **“hola ok pa!!”** Desde la casa del nº 50 de Erdiko Kale hizo suyos los sonidos, olores, susurros, colores... del pueblo. Y nuestras calles y cantones han sido retratados sin cesar por sus pinceles, hoy en tono ocre, mañana azul, ayer con aquel detalle, hoy, sin embargo, con este otro.

Angelines es el amor de Julio, amor escrito con mayúscula. Compartieron durante cuarenta largos años la ilusión de un mejor futuro, en una sociedad rígida e inflexible que casi nada sabía sobre la libertad de los sentimientos humanos. Los corazones de ambos, sin embargo, se prometieron mutuamente amor verdadero y supieron ser felices en aquel abrupto trayecto.

He puesto en tercer lugar a Aramaio, ya que Julio desde su juventud ha plasmado en sus imágenes los diferentes rincones de aquel valle. En cierta ocasión, le echó en cara – eso sí, con gran respeto- a la afamada pintora paisajística Mentxu Gal que no era ciertamente conocedora de la belleza de Euskal Herria... porque no había estado jamás en Aramaio.

Ha tenido inclinación especial por Alava. Siempre le ha atraído la Alava multicolor y a menudo encontramos a nuestro artista en Barrundia y/o por los parajes riojanos, fijándolos en sus tonos especiales.

¿Y qué vamos a decir sobre el caserío Akixo? ¡Cuántas veces habrá pintado el caserío de Garagartza! Hasta con los ojos cerrados ha sido Julio capaz de plasmar con todo lujo de detalles el conjunto de edificios que lo conforman.

L.

